

Assemblea
General 2024

Asamblea
General 2024

2024ko Batzar
Nagusia

Asemblea
Xeral 2024

2023 Ekintza Planaren emaitzak

Aurkibidea

- 1.** Indarrean dagoen plan estrategikoa
- 2.** 2023rako zeharkako helburuak
 - a.** Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea
 - b.** Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea
 - c.** Merkatu elektrikoaren barruan autonomia handiagoa lortzea
 - d.** Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea
- 3.** Lehenetsitako beste helburu batzuk

- 1. Indarrean dagoen plan estrategikoa**
- 2.** 2023rako zeharkako helburuak
 - a.** Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea
 - b.** Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea
 - c.** Merkatu elektrikoaren barruan autonomia handiagoa lortzea
 - d.** Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea
- 3.** Lehenetsitako beste helburu batzuk

1. Indarrean dagoen plan estrategikoa

Helburu estrategikoak 2023ra arte:

- **Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea**
- **Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua** handitzea
- Merkatu elektrikoaren barruan **autonomia handiagoa lortzea**
- **Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea**

1. Indarrean dagoen plan estrategikoa
2. **2023rako zeharkako helburuak**
 - a. Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea
 - b. Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea
 - c. Merkatu elektrikoaren barruan autonomia handiagoa lortzea
 - d. Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea
3. Lehenetsitako beste helburu batzuk

2. 2023rako zeharkako helburuak

Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea	
Talde Teknikoaren antolakuntza	Geroz eta horizontalagoa, autogestionatuagoa, arinagoa eta genero-perspektiba handiagoduna den Talde Tekniko bat eraikitze aldera aurrera egiten jarraitu dugu. Horrela, koordinaziokidetza orokorra ezarri genuen norberaren kudeaketan laguntzeko lidergo-esperientzia batean.
Komunikazio-plana	Berriazko estrategia guztiak zentralizatzen bukatu dugu.
SAGE	Taldean eta proiektuen arintasuna eta kostuaren analisia hobetzea ahalbidetu duen kontabilitatearen kudeaketarako programa inplementatzen bukatu dugu.
Laneko bazkidearen eta bazkide laguntzailearen profilen aztertzea	Bi lantalde egin ditugu bi profil horiek zabaltzeko proposamen bat egiteko eta Batzar Nagusian bozketara eraman ala ez erabakitzeko.

2. 2023rako zeharkako helburuak

Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea

Som Comunitats (Singulars proiektua)

- Energia-komunitateak laguntzeko eta sustatzeko [Som Comunitats](#) plataforma garatu, martxan jarri eta kudeatu genuen.
- Energia-komunitateetako ekimen aitzindarien **baldintzei erantzun genien** eta behar horiek betetzeko garatu beharreko **zerbitzu berriak identifikatu genituen.**
- Energia-komunitateak energia- eta gizarte-eredua eraldatzeko tresna erabakigarri **bihurtu** zitezten **akordio estrategikoak garatu genituen.**
- **Katalunian energia-komunitateen** sare baten sorrera bultzatu genuen.
- **Eredua Kataluniatik kanpo kopiatzeko** elkartasunak garatzen hasi ginen.

2. 2023rako zeharkako helburuak

Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea

Elkarrizketa Handia

Herritarren asanbladen metodologian oinarritutako [eztabaida-prozesu](#) bat da eta bere helburua epe ertainera eta luzera (2030 urterako) esparru estrategiko orokor bat ezartzea da. Prozesu horrek kooperatibako eragile guztiak ukitu ditu eta hainbat fase izan ditu. Lehenengo, Kontseilu Errektoreak eta Talde Teknikoak lanerako marko bat ezarri zuten. Ondoren, Tokiko Taldeek eta Kontu-Hartzaitzak baliozkotu eta osatu zuten. Bukatzeko, 30 bazkide hautatu ziren ausaz kooperatibako dibertsitatearen ordezkari izateko eta hiru asteburutan zehar eztabaidatzen aritu ziren eztabaida-gunearen esparruan. Prozesuaren ondorioz, kooperatibaren etorkizuneko ekintzak lehenesteko esparru bat osatzen duten hainbat gomendio sortu ziren. Sozietate-oinarriari ere galdetu zitzaion iritzia eman zezan.

2. 2023rako zeharkako helburuak

Merkatu elektrikoaren barruan autonomia handiagoa lortzea

Malgutzearekin lotutako proiektuak

- **Etxeko** eskariaren **malgutzearen** esparruan, Europako RescoopVPP berrikuntza-proiektua gauzatu dugu. [Cofybox](#) gailu adimendunarekin, 25 bazkideren etxeetan kontsumoa automatikoki mugitzea lortu dugu, ondorioz autokontsumoak optimizatuz.
- Era berriak probatu ditugu elektrizitatea kontsumitzeko era hobeak/okerragoak identifikatzeko, esate baterako [Firefly](#) detektagailua.
- **Industriako** eskaria **malgutzea** lantzen hasi gara eta arlo horretan nekazaritza-sektoreko talde kooperatiboekin gidaritza-probei ekin diegu.
- Eskain ditzakegun zerbitzu berriak identifikatu ditugu eta **eskariaren batzaile** bilatzeko elkartasunak bilatu ditugu.

Hornikuntzaren dibertsifikazioa

- Eguneko merkatuko eragiketak jada ez ditugu bitartekari baten bidez egiten, era autonomoan baizik.
- Etorkizunen merkatuan eragiketak egin ditzaketen eta estaldurak negoziatzen ditzaketen pertsona-kopurua handitu dugu.
- Aldebiko akordio fisikoak kudeatzeko pausoak eman ditugu.

2. 2023rako zeharkako helburuak

Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea	
Tarifa indexatua	Uztailetik aurrera eskuragarri egongo den tarifa berria .
Flux Solar	Flux Solar , fakturan konpentsatu ezin izan diren autoekoizpenaren soberakinengatik deskontua jasotzea ahalbideratzen duen erreminta, martxan jartzea.
Hiriko sorkuntza (GURB)	Kataluniako Mataró udalerrian gidaritza-proba. GURB zerbitzu berrirako estaldura-bilaketa . Etorkizunean egin daitezkeen proiektuetarako 15 estaldura azterketa-prozesuan.
Generation kWh	Barne-kudeaketa hobetzeko hainbat gai tekniko landu ziren. Generation kWh berriz irekitzea .
Ordezkaritza merkatuan	2023an ekoizpen berriztagarriko 184 instalaziok zuten ekoizleen ordezkari-tza-zerbitzu berria.

2. 2023rako zeharkako helburuak

Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea	
Plant Monitor	Sorkuntza berriztagarriko gure instalazioak optimizatzekeo monitorizazio sistema propioa. Instalazioko datuetatik aurrera analisi bat egin dezakegu gure adierazleak erabilia eta alerten bidez matxurak erraz antzeman, matxuraren iraupena ahalik eta gehien murrizteko.
Som Serveis (Singulars proiektua)	Som Mobilitatekin eta Som Connexiórekin batera, erakundeei eta enpresei merkaturatze bateratua aztertzekeo eta testatzekeo proiektua.
Autokontsumo birtual dinamikoa	Autokontsumo modalitate bati ere heldu ezin dioten sorkuntza-instalazioen jabeen taldeei zuzendutako zerbitzua da. Orduz ordu banatuko da energia eta sorkuntzaren arabera energia banatzeko aukera emango da. Som Energiak ordezkartza- eta merkaturatze-zerbitzua eskainiko die.

Aurkibidea

1. Indarrean dagoen plan estrategikoa
2. 2023rako zeharkako helburuak
 - a. Talde Teknikoaren eraginkortasuna eta ongizatea sustatzea
 - b. Eraldaketa energetikoan parte hartzen duen pertsona-kopurua handitzea
 - c. Merkatu elektrikoaren barruan autonomia handiagoa lortzea
 - d. Zerbitzu-karta hobetzea eta zabaltzea
3. **Lehenetsitako beste helburu batzuk**

3. Lehenetsitako beste helburu batzuk

Lobby-ekintzak	
MLBNeko araudi-aldaketak	Espainiako Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean partaidetza aktiboa izateak, araudian eragiteko aukera eman digu. Batzordean, eztabaidatzeko aukera izan dugu eta erabiltzaileen onurarako eta prozesuak eta izapideak arintzeko hainbat proposamen egin ahal izan ditugu.
Eragin politikoko protokoloa	Protokolo bat egin genuen lobby-ekintzak eta -ekimenak kudeatzeko. Horrez gain, baliagarria izango da artikuluak eta Som Energia gisa parte hartutako jarduerak biltzeko, adibidez, aurkezpenak eta bilerak. Balio izango du, halaber, gure mezuak bateratzeko; baita eragin nahi diegun partaideak eta horretarako ditugun aliatuak erregistratzeko ere.

3. Lehenetsitako beste helburu batzuk

Lobby-ekintzak	
Beste lobby-ekintza batzuk	<ul style="list-style-type: none">- Alegazioak aurkeztu zaizkio proiektu honi: “Energia elektrikoaren sorkuntza-instalazioen garraio- eta banaketa-sareetarako sarbiderako eta konexiorako metodologia eta baldintzak ezartzen dituen zirkularra”.- Alegazioak aurkeztu zaizkio proposamen honi: “Sektore elektrikoko banatzaileen eta merkaturatzaileen artean informazioa partekatzeko fitxategien formatu berriak onartzen dituen eta beste formatu batzuk berraztertzen dituen ebazpena”.- Alegazioak aurkeztu zaizkio proiektu honi: “Itsasoan kokatutako instalazioetan energia elektrikoaren ekoizpena arautzen duen Errege Dekretua”.- Goienerrekin batera, honen zuzenketak lantzen ari dira: “Bezeroak artatzeko zerbitzuak arautzen dituen Lege Proiektua”. Lege Proiektuaren zuzenketa horiek hainbat diputaturi helaraziko zaizkio parlamentu-zuzenketen fasean aurkezteko.

3. Lehenetsitako beste helburu batzuk

Komunikazio-esparruko berriak

Berdintasuna

- Berdintasunari buruzko atala estreinatu dugu webgunean. Bertan kooperatibak arlo horretan jarraitzen dituen jardunbideak eta neurriak laburtzen dira eta hortik eratorritako hainbat gida, protokolo eta dokumentu daude.
- Jazarpen sexuala, sexuagatiko jazarpena eta aniztasun sexualagatiko jazarpena saihesteko, antzemateko, tratatzeko, jarraitzeko eta erreparatzeko protokoloa argitaratu dugu. Som Energiarekin loturaren bat duten pertsona guztiei aplikatzen zaie protokoloa.

Moltes gràcies!
¡Muchas gracias!
Eskerrik asko!
Moitas grazas!